

# **B**arbiereen auzia

Abokatu polemiko bat  
auzi historiko batean

**Vergès, FLNko abokatu bat**

**Barbie nazia defenditzeko**


**Gainean dugu Klaus Barbie-ren kontrako auzia. Zirrara handia sortu dezake «Lyongo harakina» delakoari egingo zaion epaiketak, eta bere abokatu den Jacques Vergès-i gauzak ongi ateratzen bazaizkio, aspaldiko polemikarik gogorrena ezagutuko du Estatu Frantsesak. Baina nor dugu Jacques Vergès? Bere buruaz bezala eskuartean duen kasoaz argitasun puska bat eman diezagun jo du ARGIAk beregana.**

1985ean Klaus Barbieren defentsa bere gain hartzen zuela eta harriturik utzi zuen mundu guztia Jacques Vergès abokatuak. Nazio askapen mugimenduen eta batik bat FLNko militanteen defentsak egin zuen famatu. Azken kasoa, Georges Ibrahim Abdallah libanotarraren defentsa izan du. Euskal errefuxiatuak ere defenditu ditu. Zer egiten du Barbie naziaren abokatu lanetan?

Thailandian sortu zen Jacques Vergès, 1925ean. Aita diplomatiko frantses bat

zuen —aitona katalanak utzi dio abizena— eta ama berriz vietnamdarra zen. 17 urterekin Erresistentzia frantsesean sartu zen, gerran. Gerra ondoren PCFko kidea izan zen, eta bere anaia Paul idazkari nagusi izatera iritsi zen.

Aljeriako gerra hasita, FLNko presoak defenditzen zituen abokatu taldearen partaide izan zen, eta diotenez 1965ean islamera bihurtu omen zen. 60.eko hamarkadaren bukaera aldera erresistentzia palestindarreko militante asko defenditu zi-



*Batzuentzako megalomano bat, beste abokatu oso berezia da Jacques Vergès.*

tuen, eta 1970a aldean desagertu egin zen. Batzuek diote Yemenen egon zela, beste batzuek Kanbodian, Aljerian zegoe-la norbaitek... Berak ez du argitzen: «gauza asko egin ditut urte batzuetan» dio.

1979an militante anticolonialista eta ezkertiarak defenditzen azalduko da berriz, «Carlos» famatua horien artean. «Palestindarrak defenditu ditut Israelen, Grezian, Suizan...».

Eta 1985ean eman zuen sospresa, Klaus Barbieren defentsa bere gain hartzean. Aurreko kasoa ere sonatua izan du: Georges Abdallahena. Honen inguruko eskandalo guztiak gutxi baziren, epaia jakin eta laster ezagutu da urtetan Abda-



ko jeinu bat, edonola ere

ahren lehen abokatua, Mazurier izeneko ultraezkertiar ezagun bat, zerbitzu sekretu frantsesek eresia zeukatela.

Prozesu politikoetan haustura sortzea da Vergèsen estrategia, eta horretaz liburu bat ere badu argitaratua: «Borroka eta integrazioa. Auzi politikoetako defentsa estrategiak».

## FLNko abokatu izatetik nazi baten defentsara

Barbieren defentsak esplikazio bat eskatzen du. Eta eskatu egin diogu. «Trajektorio oso garbi batetik ibili naiz, eta esplikazio bat eskatzen duen kaso bakarra

Barbieren da. Hori dela eta Aljerren izana naiz 'Gizadiaren kontrako krimenak, koartada bat' gaiari buruz hitzegiteko. Imperialisten koartada edo alibi bat direla esplikatu nuen han, eta ene ideiak ontzat ematen dituzte borrokalari antikolonialistek».

Aljerrera hango hango majistratuek konbidaturik egin zuen bidaia aipatzean, Aljerian ongi ikusia dela azpimarratu nahi du. Hango gobernuak Abdallahren kasoarekin ere zerikusia bazuen, eta orain eskuartearen duen kasoak ere norbaiti mesede egitekotan Aljeriakoei egingo die. Zer dago Aljerren eta abokatu honen artean? Batzuen ustez, han oraindik helduleku sendoak ditu Vergèsak, eta besteen ustez Aljerian ez da hain ongi ikusia.

«Sarritan esan zait, bai, 'torturak eta masakreak behin eta berriro salatu dituzun hori, nola sartu zara orain holako tipo bat defenditzera?'. Eta nik zera erantzuten dut: Barbie defenditzen badut hain zuzen FLNko abokatua izan nintzelako da».

## Borreroa biktima gisa azaldu ez dadin

Barbieren kontrako prozesoa, eta orohar «humanitatearen kontrako krimenak», mistifikazio batzuk dira Vergèsentzako. Alemanen kontrako prozesuak berrogei urte geroago luzatuz, Mendebal Europako estatu kolonialistak eta Israel bera beti biktima moduan agertzen direla dio, gizadiaren kontrako biktima eternoak balira bezala.

«Eta aitzitik, gaur egun humanitatearen kontrako krimenak jasaten dituztenak herri kolonizatuak dira: alemanen biktimak izan zirenak gaur palestindarren borroak dira, libanotarren borroak. Israelek, hala ere, beti bere burua juduen sufrimenduen oinordekotzat dauka. Vietnamdarren, malgatxeen eta aljeriarren borroak frantsesak izan dira, baina gizadiaren kontrako krimenen biktimatzat azaldu nahi dute».

Aljeriako gerran Frantziak egindako masakreak oroitarazten ditu abokatuak: zituen bederatzi milioi biztanleetatik milioi bat hil zuen Armada frantsesak. «Hiltzaileak biktima moduan azaldu nahi du orain, eta hori da nik salatu nahi dudana: 'Zuek egin duzuen, alemanek egin dutena baino okerragoa da'».

## Naziak beste krimen guztien estalki

Dossier bat erakutsi digu abokatuak. Aljeriar batena da: bere gurasoak frantsesek hil zizkioten, eta berak kerella edo plenta bat ipini zuen, gizadiaren kontrako krimena dela eta. Parisko Apelazio Gorteak, Barbieren kasoak ikusiko duenak, ezetza eman zion horri, «1968ko uz-

tailaren 31eko legeak Aljeriako gertakizunetan jazotako infrazio guztiak amnistiatzen dituelako».

Hari horretatik doa Vergès. «Hau aurpegiratzen diot justizia frantsesari: krimenak zeurok burutzen dituzue, amnistiatu egiten dituzue, ahaztu daitezke beraz; eta aldiz alemanenak inpreskriptibleak dira, eta horien erantzunkizuna historiak ezin omen du ahaztu. Baina horra: edo alemanen gaiztakeriak pertsegitzen dituzue eta zuek Aljerian eta bestetan egindakoak ere bai, edo eta bestela batzuk bezala besteak ahaztutzat eman behar dituzue».

Barbie espetxean dagoen bitartean Ariel Sharon bezalako hiltzaileak Parisen besoak zabalik hartzen dituztela gogoraez digu. «Gizadiaren kontrako krimenak 1933an hasi eta 1945ean bukatu balira bezala. Eta geroztikakoak diren Vietnam, Aljeria...».

## Auzi-show bat lehertzeko

Baina nazi baten defentsa aukera egokia al da frantsesen krimenak demostratzeko? Demonstratu nahi dena interesgarria izanik ere, behar bada Barbie inola defenditu ezin dugun tipo bat da.

«Ikuspuntu hori morala da, eta ez politikoa. Politikaz ari naiz. Ez gara orain fariseoak bezala hasiko: Italian ere demokristauak komunistei 'konpromezu historikoa' eskaini zieten, eta hori demokristauen zuzendaritzan historia fazistako jendea egonik».

Orain epaitzen dena ideologia nazia ez denez, eta Barbie bera Frantziaren egin zuenaz 1952 eta 1954ean jutu zutenaz, orain «auzi-show» bat egin nahi dute abokatuaren ustez. «Baina erresistentziaren kontrako krimenak jadanik preskizioan sartuak daude, auzi aldetik galdu dute indarra, eta juduen kontrako aldiz ez. 1954ean epaitu zutenean juduen kontrako krimenik ez zioten aipatu ere egin. Gizadiaren kontrako krimenak show horretarako aitzakia direnez, Hirugarren Munduak Frantziari zor dizkionak ikusiko ditugu».

## Erresistentzia barruko saltsak

Bada arma bat Barbiek erabili dezakeena. Juduen kontrako errepresioa aipatzen bada ere, eritzi publiko frantsesak ondo gogoan du Barbiek Erresistentzia frantsesaren kontra eramandako errepresioa. Gestaporen eskuetan hil bait zen Jean Moulin ezaguna, Erresistentziako buruetako bat.

Tirabira handiak ziren Erresistentziaren barnean, eta Jean Moulin traizionatu zuena bera duela gutxi hila da, Hardy izenekoa. «Orain arte lekuko bat egon da mutu, Barbie bera. Eta orain arte isilik gorde nahi zituenak plazaratzeko motibo



# Ibrahim Abdallah eta arabeak, Bereziartua eta euskal errefuxiatuak

«Garaipen bat izan da Georges Ibrahim Abdallah-ren auzia. Gobernuak konpromisozko irtenbide bat nahi zuen: zortzi urtetarako gartzela. Hori eskatu zuen fiskal nagusiak, baina asto bat bezala mintzatu zen, eta epaileen artean alderantzizko efektua lortu zuen.

Amerikanoek eta Elisséetan zigorrik gogorrena nahi zuten. Abdallahk berriz garbi esan zidan: 'Ahaztu itzazu garaipen profesionalak. Ez dugu zortzi urte horien tranpan erori behar. Ene dossierra garbi dago, baina atentatu horiek burutu dituztenekin solidario naiz. Justizia frantsesa argi eta garbi mintzo dadila: edo libre edo bizitarako espetxea'.

Abdallahk eskatu zidan bera joan arren epailetan ni gelditzeko, amerikanoei barkamenik gabeko borroka egiteko, etengabe amerikanoak presente egon zitezten. Bigarrenik, Georges Abdallahen kontra kargu serioak ez zela demostratzeko. Gero kazetari amerikarrek idatzia dute Estatu Batuetan Abdallah ez zela kondenatua izanen. Horregatik, perpetuitateko zigorra deklarazio politikoko bat da.

Abdallahren deklarazioak, gainera, ez daude frantsesei gustua emateko eginak, arabeei begira esan ditu. Arabek ez zuten dirauteno inon bakerik ez dela izango adierazi du. Eta Abdallah-entzako garaipen politikoko bat izan da».

## Libanoko mugimendu korapilatsuak

«Abdallahren historia interesgarria da oso. Pasaporte aljeriar benetako batekin harrapatu zuten. Prozesatzen dute, eta Libanon dituen lagunek frantses bat bahitu eta trukea eskaintzen dute. Gobernu frantsesak Aljeriakoarengana jotzen du, Abdallahren lagunekin kontaktoa egin eta ados daudela diote.

Tratuaren ondorioz Abdallahri kondena ttiki bat ezarri behar zioten laster kaleratzeko. Baina Libanon frantsesa askatzen duten egun berean, polizia frantsesak adierazten du bi ordezkarik militar israeldar hiltzeko erabilitako armak dituen zulo bat aurkitu duela: tratua onartu, baina gero ordaintzeari uko egin dio.

Ezkerak hauteskundeak galdu ondoren, Lyonen egindako auzian lau urteta-

ko gartzela ezartzen diote, eta bi israeldarren hilketan parte hartu zuelako probarik ez dagoela adierazten da. Baina, amerikanoek publikoki kritikatzeko dute Lyongo auzitegia, eta Parisko apelazioan parte zibil agertzen da. Mitterrand Whashingtonen da egun horietan, eta horretaz mintzatzeko da amerikanoekin.

Irailean gelditu ziren Parisko atentatuak, gaur arte: hor zerbait negoziatu zen. Baina kondena ahul bat espero zen lekuan, perpetuitaterako zigorra ezarriko diote. Beraz, Chirac-en gobernuak joko galdu du eritzi publikoaren eta sozialisten presioaren aurrean».

## Sozialisten apostu egoskorra

«Demagogia oso bat dago populazioa terrorismoaren kontra eta arabeen kontra mobilizatzeko. Eta demagogia horretan Partidu Sozialista aurreko muturrean dabil.

Ni baino lehen Abdallah defenditu zuen abokatua poliziari saldua zegoela demostratu da gero: horra zein puntutara dagoen usteldua Frantziako demokrazia. Inon ez da ikusi holakorik. Badira traizioa egiten duten abokatuak, baina ez da inon ikusten abokatu-poliziarik. Eta hori ezkerreko gobernuaren zegoen bitartean egin da. Izan zuten Abdallah libre uzteko aukera, baina gobernu sozialistak ez zuen nahi izan.

Aurreko abokatua salduta zegoela eta prozesoa berrir irekiko ote den? Indar-harremanean arabera joango da hori. Prozesoa berriz irekitzeko baldintzak badira, baina... Dena dela, indar-harremanean hori Abdallahk erakutsi duen argitasun politikokoak errezten du».

«Euskal errefuxiatuak ere logika beraren barruan defenditu ditut. Euskal Herriaren nazio askapen borroka bat dagoela uste dut eta Frantziaren kolpatuak diren euskaldunek laguntza behar dutela.

Euskal errefuxiatuen kontra ezkerrek zabaldu du errepresioaren bidea, eta gaur egun partidu politikoen artean consensus bat dago euskaldunen kontra. Fabiusek eman zituen lehendabiziko estradizioak. Oraingoa horren jarraipena da.

Ez dut euskaldun asko defenditzeko aukerarik izan, eta ez ditut kasoak sako-



netik ezagutzen. Ez naiz sartuko kaso horiek neregaino nola iritsi diren aztertzen, errefuxiatuen arteko barne arazoak dira eta. Baina esan dezaket eduki ditudan bi estradizio kasoetatik, Zelaia libre dagoela eta Txema Bereziartuarena blokatua dagoela.

Euskal errefuxiatuen arazoa, «terrorista» arabiarrena bezala, ez da justizi arazo bat, arazo politikoko bat da, eta indar harremanen arazo bat. Abdallahren kontrako prozesoa bukatu eta hilabete geroago, Libanoko erakunde batek Normandik garbitzeko mehatxua egin du, eta amerikanoen abokatuak deklaratu du bahituri baten bizia trukaketa batek salbatu bazezakeen bera ezin zela kontra jarri.

Euskal errefuxiatuen etorkizuna ere indar harremanen arabera dago, egoera politikoko nazionalaren arabera eta aliantza internazionalaren arabera. Errefuxiatuen alde beti Frantzia mailan sozialistek jo dela iruditzen zait, eta sozialistak ez dira inorentzako babes. Aliantza problema bat dago, beraz, berriki daitekeena. Mundu mailan asko balio duten bi gauza dituzue zuek: batetik erresistentziaren historia luze baten jabe zarete, tradizio baten jabe, eta bestetik industria daukazue».

asko ditu orain, preso. Horrek beldurtu ditu asko». Erresistentzia sare komunista sabotajeak jasan zituela ikusiko bait da.

Barbiek ez du defentsa klasiko bat izan, beraz. Espero zitekeen betiko abokatuetako bat hautatuko zuela, tipikoa, ultraeskuindarra, goitik agindutakoa baino ez zuela egiten argudiatuko zuena. «Inork ez zuen espero Barbieren defentsa

Erresistentzian ibilitako abokatu batek hartuko zuenik. Hamazazpi urterekin De Gaulleren soldadu izan nintzen Bigarren Gerra Mundialean, Ingalaterran, Italian eta Alemanian. Abogatu ultra batek ezin-go zituen frantsesek Aljerian egindakoak aipatu, ez eta Erresistentzia batuaren mitoa hautsi ere».

## Zer egin du Barbiek Bolivian?

Barbieren defentsak puntu haur bat badu: Bolivian droga mafiarekin nahasia omen zegoen, lurjabe handiek indiarrek esterilizatzeko zituzten programekin ere nahastu dute, hango «Escuadrones de la muerte» direlakoan sorrera egotzen zaio, CIArekin inplikatzeko da...

«Frantsesek bere estradizioa eskatu zutenean, kokainarekin nahasia baldin bazegoen, edo 'Escuadrones de la muerte' en sorrerarekin, detenitzeko aski motibo bazen; areago han agintzen duena Siles Suazo sozialista izanik.

Baina espetxera ez zuten horregatik sartu: duela 15 urte bera jerente zen enpresa baten zorrak zirela medio sartu zuten. Bere konpainiaren zorren erantzule

**Georges Ibrahim Abdallah bere auzia garaipen politiko sendo bat lortu zuela dio abokatuak.**



Barbie egin zuten. Horra aitzakia. Barbieren kontrako gauza serioak baldin bazen, uste al duzu holako trikimailuen beharrik izango zutela?».

Ejertzito alemanarekin lan egin zuela frogatua dago, ordea; eta torturetan parte hartu zuela Boliviako atzerritatu politikoei argitaratua dute. Horiek esames hutsak direla dio seguru Vergèsek. «Gizon hau torturatzaile bat izan dela jakinik ez nuke defendituko. Bestalde, uste al duzue Boliviako latifundistek kontseilari aleman baten beharra dutela inor torturatzeko-tan? Eta CIArekin lan egingo balu, utziko al zuten Frantziara ekartzeko?».

## Abokatu oso berezia

Asko ala gutxi izango dira Vergèsen alde mintzatuko direnak? Ezkerreko asko behintzat ez. «Baina ezker frantsesa sozialdemokrata da! Eta hori da okerrena. Nor zen Barne Arazoetako ministrari Aljeriako gerra lehertu zenean? François Mitterrand. Nor zen Justizi ministroari espetxe frantsesetan lehendabiziko preso aljeriarrak hil zituztenean? François Mitterrand».

Eritzi publikoa bereganatzeko itxaropenak baditu. Lyongo unibertsitatean zientzi politikoak ikasten dituztenek hitzaldi baterako konbidatu zuten duela gutxi eta anfiteatro nagusia ikaslez gainezka omen zegoen. «Dijongo ikasleek konbidatu ninduten, eta mila lagun ziren entzulen. Etengabe pasatzen dire bulego honetatik kazetariak, direla eskuineko edo ezkerreko».

Epaiketak hartuko duen konplikazioaren itzalik ere ez dute lerro hauek. Baina zenbait hari argituko dituzte ziurrenik. Barbieren kasoaz aparte, ordea, bigarren galdera nagusia aidean gelditzen da: nor da eta nora doa Jacques Vergès hau?

Megalomano bat da batzuentzako —argazki estrabagante batzutan atera da prentsa frantsesean—, askapen mugimenduen alde asko egin ondoren bere pertsonalitateak harrapatua daukana, inguruko abokatu guztiekin haserretu dena. Abdallahen auzia garaipen bat izan dela badio Vergèsek, beste abokatu batzuek uste dute hor «behatzak harrapatu» dituela.

Edonola ere, denak datoz bat oso azkarra dela aitortzean. Eta megalomania, neurri batean edo bestean, ez da gaitz urria abokatuen artean.

Oraintsu publikatu den liburu batean munduko terrorista guztiekin nahasten dute Vergès. Aljeriarren eskua ikusten diote beste batzuek. Euskaldunontzako, normalean errefuxiatuen arduraren daramaten abokatuarekin gaizki moldatzen dela ikusteak ez ditu zalantzak gehiago argitzen. Baina Jacques Vergèsen badu bere esplikazioa: orriotan duzuña.

GATZAGA TALDEA